

DATUAK BABESTEARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA

Tratamenduaren izena	HORNITZAILEAK
Tratamenduaren arduraduna eta harremanetarako datuak	Osakidetza - Euskal osasun zerbitzua / Ekonomiako eta Finantzako Zuzendaritza – Araba, 45 – 01006 Vitoria-Gasteiz
	Osakidetzako Datuen Babeserako ordezkaria: – Araba kalea, 45 – Vitoria-Gasteiz – DBO-DPD@osakidetza.eus
Tratamenduaren xedea	Fakturazioaren gaineko zerga arauak betetzean, hornitzaileak kudeatzea, baita hirugarrenekin urtean zehar egindako eragiketen aitortpenari buruzkoa ere.
Datuak gordetzeko epea	Kontabilitateko dokumentuak: 6 urtez, dokumentuetan aipatzen den ekitaldi ekonomikoa amaitzen denetik hasita. Kontabilitate-erregistroak: 15 urtez. Epeak, bi hauen arabera: urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretua, zeinaren bitartez onartzen den Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina, eta hori garatzen duen 464/1995 Dekretuaren 3. artikulua (Gordetzeko araubidea)
Tratamenduaren oinarri juridikoa	Tratamendua beharrezkoa da interesduna alderdi den kontratu bat gauzatzeko, eta interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak erabiliz egindako misio bat betetzeko, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen arabera.
Hartzaileak	Foru Ogasunari datuak jakinaraz dakizkioke (eragiketen bolumena/atxikipenak), 58/2003 Zergei buruzko Lege Orokorraren arabera.
Eskubideak gauzatzea	Interesdunak datuetara sartzeko eta horiek zuzendu edo ezabatzeke, eta tratamendua mugatzeko edo horri uko egiteko eskubideak gauzatu ahal izango ditu idatzi bat zuzenduta Osakidetza – Ekonomiako eta Finantzako Zuzendaritza, Araba kalea 45 - 01006 Vitoria-Gasteiz helbidera, NANaren edo beste nortasun-dokumentu baliokide baten kopia erantsita.
	Interesdunak, halaber, eskubidea du Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrean erreklamazioa aurkezteko.